



# goi

2013ko maiatza - 12. zenbakia

Goizuetako  
aldizkaria

**Goizuetarren  
esanak eta  
eginak, herriko  
bizitzaren zipriztinak**





# zenbaki honetan



# aurkibidea

• **Argitaratzailea:**  
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**  
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**  
astidiseinua.com



- **3**..... Aurkezpena
- **4-5**..... Atzera begira. 1970-71-72
- **6-7**..... Goizuetako antzerki taldea
- **8-9**..... Azaro kulturala
- **10**..... Landa vs zementua
- **11**..... Baietz asmatu
- **12-13**..... Goizuetako hizkera aldatzen ari da?
- **14-16**..... Goizueta iruditari
- **17**..... Bertso txokoa
- **18-19**..... Yakenele ("eskerrik asko") Wukro
- **20-21**..... Julen Apeztearekin hizketan, meditazioaz
- **22-24**..... Euskara Goizuetan garai batean
- **25**..... Ezetz asmatu
- **26**..... Ipuin erotikoa
- **27**..... Inkesta
- **28**..... Zure txanda



# Goizuetarren esanak eta eginak, herriko bizitzaren zipriztinak

**X**APO aldizkari honetako inkestan Aimar Olaizolak zenbat zapel dituen galdetu diegu herritarrei. 12 izan dira orain artekoak, harritzeko moduko marka. Eta 12 izan dira, hain zuzen ere, orain arte argitaratutako XAPO aldizkariaren zenbakiak. Hori ere ez da marka makala, eta ea 12 x 12 egitera ere iristen garen.

Oraingo honetan ere kontu eta gai interesgarriak aurkituko dituzue, eta goizuetarrak denetan protagonista, XAPON izan ohi den bezala. Gaurko eta atzoko kontuak, gustuko izaten baitugu atzera ere begiratzea. Horretarako atal berezi bat izaten dugu aldizkarian, "atzera begira" izenekoa hain zuzen, baina orain-

goan beste bi erreportaje berezi egin ditugu begirada atzera botatzen dutenak.

Alde batetik, duela 51 urte goizueta-  
rrek egindako antzerki emanaldi bat ekarri dugu gogora. "Aberatsak olaxe egiten" izenekoa emanaldia prestatu zuten herritarrek, baita arrakasta handiz han eta hemen eman ere. Frankismoa indarrean zegoen, baina baita goizueta-  
rren euskalduntasuna eta antzerkizale-  
tasuna ere, eta zailtasunen gainetik antzezlana prestatu eta eman egin zuten. Bestalde, euskara, euskal kultura eta gisakoak duela urte mordoxka bat zertan ziren galdetu diegu Jose Antonio Apezetxea eta Maritxu Salaberriari, aldatu diren gauzak eta agian hainbeste

aldatu ez diren batzuk gogoan izateko.

Baina dena atzera begiratzea ez denez, gaurko gaiak ere baditugu XAPON: ohi bezala azaro kulturalako kronika; herritarren iritzia; Goizuetako euskar-  
an gertatzen ari diren aldaketak; goizueta-  
rren bidaiak edo herrian bertan egiten dituzten ekintzak... Eta ohiko atalak: inkestak edo galdetegi laburrak; ipuin erotikoa; bertso txokoa; ezetz asmatu; eta Goizueta iruditzen.

Osagai horiekin guztiekin zure gustuko aldizkaria osatu dugulakoan, hurrengo orrialdera joan eta irakurtzen jarraitzera gonbidatzen zaitugu, zure herriko Xapo aldizkari honen 12. zenbakiarekin gozatuz.

# atzera begira



Anton Xabier Berroeta lau urtez aritu zen Diario de Navarra Goizuetako kronikak idazten.



1969-1970 inguruko argazkia.



## 1970-71-72

Xapoko atal hau osatzeko Esteban Arozenak TTipi-ttapparako egindako kronikak erabili ditugu orain arte. Oraingoan urte batzuk atzerago joko dugu, 1970eko hamarkadara hain zuzen.

1971ko abenduaren 29an argitaratu zuen Diario de Navarra Anton Xabier Berroetak (Lubine, 1940) idatzitako lehenengo kronika. Ordurako ematen zuen tarteka gure herriaren berri Iruñeko egunkariak, 1970eko eta 71ko festen programak edo Umore Ona Peñak sinatutako artikulu bat, 1971ko Amabirjina bezperan argitaratua, esaterako.

Lau urte iraun zuen Berroetaren berriemaile lanak, 1975eko abuztuaren idatzi baitzuen bere azkeneko kronika. Amabirjinetako festen berri ematen zuen bertan. Udaletik sortutako informazioa nagusitzen zen, jakina, besteen gainera, kritika zorrotz samarrekin gainera batzuetan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Medioa eta garaia zein zen jakinik, ez dago esan beharrik noski berri guztiak gazteleraz argitaratzen zirela, bai-

na kronika bat baino gehiagotan argi gelditzen da, edozein aitzakia medio, berriemailearen euskaltzaletasuna. Dena den eta berri-zahar hauek zuen begi bistan paratu aurretik, eskerrak eman behar dizkiogu Berroetari dokumentu hau helarazi digulako.

Zatika-zatika emanen ditugu Xapon Diario de Navarra kronika hauek. Hala ere, Anttonen berriak idatzi baino lehen, hasieran aipatutako 1970eko eta 1971ko abuztuko festen programei emanen diegu gainbegiratuak.

Oraingoan antza bazuten orokorrean orduko festen egitarauak. Alkateak abuztuaren 14ko eguerdian botatzen zuen itxaferoa. Arratsaldean, ongi etorria egiten zitzaion berbenak jotzera zetorren orkestrari, kasu honetan, Iruñeko Los Rich. Amabirjina egunean berriz, dianak, entzierroak, mezak, prozesioak, bonba japoniarrek, dantza taldeak eta pilota partiduek osatzen zuten goiza. Arratsaldean bestalde, zezenak eta garai haietako bi aizkolari onenen arteko lehia (Mindegia eta Arria) nabarmentzen ziren. Arratsean

berriz, su artifizialak izaten ziren eta dantzaldia ordu biak arte.

Gainerako egunetarako ere antzeko ekitaldiak iragartzen zituen 1970eko egitarauak. Aipatu esate baterako, Leitzako Retegui eta herriko Salaverria I.aren arteko desafioa antolatu zuela Peñak hilaren 16an, eta Goizuetako Arano lehian Lekuona-Berroetak jokatu zutela Olaizola-Leonetek kontra.

Hurrengo urteko festak ere, 1971koak alegia, goi-mailako ekitaldiz bete zituzten Udalak eta Umore Onak. Amabirjina egunean esate baterako, Vergara II.ak eta Bengoechea II.ak Bengoechea III eta Matz de Irujoren kontra jokatu zuten eguerdian, eta arratsaldean berriz, pilotari profesionalen arteko beste jaialdia antolatu zuen Peñak. Izenik ez du ematen programak. Ondorengo egunetarako ere puntako pilotarien eta aizkolarien ekitaldiak iragartzen ziren: Garcia Ariño IV, Gorostiza, Astibia, Mindegua...

Berroetaren kroniketara zuzen-zuzenean igaroz esan, 1971ko abenduan ere industria gutxi zegoela herrian. Herriar asko Leitzako Sarrionan lanera joatea behartzen zuen gabezi horrek. Kirol arloan berriz, 19 urteko Jose Manuel Echeverria aipatzen zen. Osasuna Promesasen jokatzeko zuten Urrutinek eta Zocorekin konparatzen zuten futbolaz zekitenek.



1969-1970 inguruko argazkia.



1969-1970 inguruko argazkia.



1969-1970 inguruko argazkia.



1969-1970 inguruko argazkia.

1972ko ilbeltzaren 14ko kronikan Deustuko Unibertsitateko irakasle zen P. Angel Maria Garate goraiatu zuen Anttonek. Aitasemegin igaro zituen egun batzuk Elgoibarko fraileak, eta Urte Berri egunean Tobenekobordan eman zuen meza auzoko 10 baserritako jendearen aurrean. Udaletxean al-diz, herrian telefono automatikoa instalatzeko akordioa hartu zuten ordurako zegoen behar handiari erantzun nahian. 361.000 pezetako aurrekontua zuen inbertsio horrek.

Egun berean beste hiru berri ematen zituen Anttonek. Batean, ehiztariak zoriontzen zituen 10 basurde bota zi-

tuztelako; bestean, Umore Ona Peña goraiatzen zuen honek antolatutako Erregeen kabalgata ikusgarriarengatik; eta azkenik, sortzez goizuetarra zen Mari Carmen Sucunzak, orduan Miss Vascongadas, herriari egindako bisita aipatzen zuen.

Ilbeltzaren 26an azaldu zen berriz Goizueta Diario de Navarrako orrietan. 1972an gaude. Garrantzi handiko berri batekin gainera. Lubineko Jose Miguel Gamboa, ordurako zientzialari ospetsua, Prokuradore izendatu zuten Madrileko gortean. Lekarozen ikasi zuen batxilergoa Gamboa Jaunak eta gero Zaragozako Zientzia Kimikako

fakultatean doktoratu zen. Abuztu osoa Goizuetan igarotzen omen zuten Gamboak eta bere familiak.

Egun horietan ere ematen zuen Berroetak Herriko Etxeko kontuen berri. Aurren-aurrena, arrazoi jakinik gabe batzarretara agertzen ez ziren zinegotziak kritikatzten zituen, eta ondoren, besteak beste, herrian eskola berriak eraikitzeko Udala burutzen ari zen gestioak aipatzen ziren. Ondorengo urteetan herriarentzat hain garrantzitsua izan den gai honen jarraipena (eskola berriarena) eta beste kontu interesgarri asko Xaporen hurrengo zenbakian kontatuko dizkizuegu.

# Goizuetako antzerki taldea



'Aberatsak holaxe egiten', Betelu 1962.


**G**ure belarritarra alletu da, oain dela 50 urte Goizutan bazela antzerki talde bat.

Kontutan hartzen badu Frankismo garaia zela eta antzerkik euskaraz ziala, gauzak ez zian batere errazak izango. Bilerak klandestinok zian, ensaiok bakoitzak bere in beharrekon ondoren (arratsen, aleia), hala ere ausartak izan zian eta 4 antzezlan taularatu zittuzten.

- 1960 : USTEIÑAT, YA LO KREO (Antonio Amundarainek idatzia)
- 1962: ABERATXAK HOLAXE EGITEN (On Saturninok idatzia)
- MAITATU ERE NEURRIZ
- AITONA ETA BILLOBA



Napar jar - Oñateko emanaldiko egitaraua. Euskaltzaindia-Azkue Biblioteka





Bakoitzak bere momentun seuru gaude bazula bere garrantzia, biño guk aipatuko du “ABERATXAK HOLAXE EGITEN” antzezlan hau. Euskararen Aldeko Sailak (Principe de Viana) sarritu in tzun 250.000 pezetakin (garai hartakok). Goizutan 1962ko abuztuaren 19an taularatu zuten, EUSKARAREN EGUNEAN, beste ekitaldi batzuen arten. Aukera izan zuten herri desberdinatan antzezteko: Donezteben, Ittuinen, Arizkun, Betelun ta GAIARRE antzokin (zenbat jende esan dezake Gaiarren egin duela lan...).

“ABERATXAK HOLAXE EGITEN” antzezlanen zuzendari lanak On Saturninok (herriko apezak) egin zituen, aktore lanetan: Milagros (Barrantzekoa), Mari Angeles (Pastersona), Mari Karmen (Bibianona), Arantxa Berroeta, Axun (Maiokoa), Mari-

txo (Txokokoa), Milagros (Bekodendakoa), Mertxe (Maisuazarrana), Antton Berroeta, Zeferino Berroeta eta Enrike Miranda; Bestelako lanak itteko (dekoratuk, pelukerik, makilajek eta abar...) laguntza ere bazuten: Mari (pelukera) Angelito, Patxi Labitxa.

Holako kontuk idatzik eotten dia nonbette biño askotan ez dakiu gertatu dianik ere. Seuru gaude badaudela gure herrin gertatutako hainbat istori eta gutxi bazuk dakizkitenak.

Kontatu nahi ttunari, prest gaude entzuteko.

Kontua da, hau dena gure herrin kultura eta istoriaren parte dela.

Denari eskerririk asko izan ziñatena izan ziñatelako eta gurekin konpartitu zutelako bizittutakoa.





# Azaro kulturala

Argazki bidez hemen azalduko dugu gure joan den urteko Azaro Kulturala nola joan zen.

## Azaroak 9, ostirala

Eskolako jangelan "Goizuetako txondargileak" DVD emanaldia izan zen. Bertan, aurreko Ferietarako prestatutako txondarra nola egin zen azaltzen zen, argazkien bidez eta pausoz pauso. Argazkien bilketa Felix Loiartek egina da.



## Azaroak 3 eta 4, larunbata eta igandea

Jubilatuena mus eta truk txapelketa izan zen larunbatean, eta igandean horien eguna ospatu zen. Urtero bezala, Umore Ona elkartearen bazkari ederra izan zuten eta 1962. urtean egindako antzerkiko partaideei omenaldi xume bat egin zitzaizkien.

## Azaroak 10, igandea

Umeentzako Ginkana eta berendua izan zen. Argazkietan ikusten den bezala, Goizuetako umeek ederki gozatu zuten hainbat jokorekin.



## Azaroak 10, igandea

"Goizutarrak kontu kontari" DVD emanaldia izan zen eskolako jangelan. Honen argazkirik ez daukagu, baina esan beharra dago bertan agertzen diren istorioak ikusteko modukoak direla, baina eguna nonbait ez zela egokia izan, ez baitzen jende gehiegirik azaldu hau ikustera.

## Azaroak 16, ostirala

Unai Bakero eta Iduurrek Hego Ameriketan zehar egindako bidaiaren argazkiak erakutsi zizkiguten.







**Azaroak 17, larunbata**

Umore Ona elkartearen eguna ospatu zen. Eguna hasteko Umore Onaren txoko berria inauguratu zen, betiko AZOKA. Aurkezpentxo bat egin zuten elkarteko lehendakariak eta herriko alkateak. Ondoren, Goizuetako abesbatzak hiruzpalau abesti abestu zituen, hau ere Umore Onako parte baita. Azokan lunch eder bat izan zen eta gauean Umore Ona elkarteko atal guztietako kideek afaria izan zuten Umore Ona elkartearen eskutik: pilotariak, dantzariak, abesbatzako kideak, futbolariak...

**Azaroak 24, larunbata**

Azken urteotan ohitura den bezala, ARTISAU ETA AZIENDA FERI eguna ospatu zen. Feria oso jendetsua izan zen, bertara hurbiltzeko aukera izan zenutenok ikusiko zenuten bezala, eta ekitaldiz bete. Bazkarian ere azken urteetan bezala frontoi bete jende bildu zen. Ondoren, nahi zuek parrandan jarraitzeko aukera ere izan zuen.



**Azaroak 23, ostirala**

Herriko Etxeko ganbaran LUZE Leitzarrak eta OSKAR ESTANGAK "Bertso musika-tuak" abestu zituzten.



**Azaroak 30, ostirala**

San Andres eguna zen, eta Andres NARBARTE Xaltoa Ikastetxean "Xaltoa" eguna ospatu zen. Beti bezala, bertsoentzako tartetxo bat izan zen eta, horretaz gain, eskolan gonbidatu bereziak izan genituen herriko garai bateko ogibide ezberdinei buruz hitz egiteko: haria egiten Anttoni eta Mikela, taloaren prozesua erakusten Mañoli, ukendu eta belarrekin Xatur eta tailan Garbiñe.



# LANDA vs ZEMENTUA



**K**osta zait kotxea aparkatzea, bi hilabete besterik ez daramat hiri honetan lanean, baina maldan gora noala sentitzen dut. Egunetik egunera auto bidaia are luzeagoa egiten zait. Gaurkoan, gainera, errematea mundiala izan da. 8etako albistegiak luzatu dit berria, kolpe latza izan da. Espero genuen albistea, baina esperantza zen bihotzean geratzen zitzaidan azken txinparta. Txinparta txikia, bizi-bizia, su bilakatu zitekeen edo behin betiko itzali. Eta hala izan da, betiko itzali dute. Gaur eman baitiote heriotza hainbeste maite genuenari.

Azaroko egun hotzak eman dit ongetorria kotxetik atera bezain pronto. Albotara begiratu eta zementua besterik ez, hiri handi amaigabea. Euskal hiria? Umore txarrez eman diot hasie-

ra egunari, boterea madarikatuz, herritarren erabaki murriztasun berri ere ohartuz. Haien erabakitzen baitute zeri eman amaiera eta zeri jarraipena. Eta hauxe izan da haien erabakia. Herritik atera eta zementuzko zorura jaurti naute, kankarreko ederra hartuz!

Ez omen dira errentagarriak eskola txikiak, globalizazioa omen da bidea, modernizazioa. Ez gaituzte errespetatu. Gure herriko eskola itxi dute, heriotza zigorra ezarri diote eta eguna argitu orduko hauts bilakatu dute. Herriarentzat kalte, herritar guztiontzako kalte. Gutxi ginen, txikia zen eskola, txikia kopurua, haur gutxi, irakasleak ere gutxi ginen, baina handiak ginen txikitasun hartan. Talde ederra osatzen genuen, hezkuntza komunitatea ginen.

Herriaren parte, herria osatzen genuen, bizirik mantentzen genuen, denok ginen eskola hura. Herria eraiki genuen. Kotxe zaratarik gabe, herriko martxa jarraikiz umeak eskolara oinez etortzen ziren, edo txirrinduan.

Orain denok erori gara homogeneotasunean. Hiriko eskola erraldoi honetan berdin bilakatu nahi gaituzte, adinka banatuz eta edukiak markatuz bide berera bultzatuz. Hemen ez da elkarren arteko irakaskuntzarako tarte handirik geratzen, handienak ez dira txikienez arduratuko, ez da elkarren arteko tutorizaziorik egongo, talde-lanak leku txikiagoa izango du. Hemen masiboki betetzen diren gela txikiak ditugu.

Lasai bizi ginen herrian, nortasuna markatzen genuen, aniztasuna errespetatzen genuen, geure bizimodua bultzatzen genuen. Euskaldun ginen euskalduna zen herrian, euskal herrian. Konstruktibismoak haratago gindozen eta inklusiboak ginen. Zoriona baita aniztasuna eta ez konponbidea eman beharreko arazoa. Elkar aintzat hartzen genuen, elkar ulertzen genuen, elkar ezagutzen genuen, taldean bizitzen ikasi genuen. Lasaitasunean, errespetuzko eta elkar laguntzako baloreak landuz. Hauxe izan da gure patua eta ez dago besterik. Eskubideak ukatu dizkigute. Baina tira! Ez dugu etsiko, oraindik asko dugu egiteko. Aurrera jarraitu behar, hiriko haurrek duten egoera ez da askoz hobea boteredunek probokatutako egoera honetan.

Hausnarketak gora, hausnarketak behera konturatu orduko jo du txirrinak. Egunonak eman dizkiet banan-banan umeei eta familia handi bat bagina bezala eseri gara borobilean. Lan egiteko prest eta gogotsu. Gertatutakoaren inguruko azalpena eman diet. "Mi abuelo es de pueblo"-esan dit Iñigok. Ane Pirritx eta Porrotxen kantuz oroitu da, "Eskola Txikiak". Guztiz esnatzeko dantzari hasi gara. Interes handia piztu da gelan, eztabaidan hasi gara gaiaren inguruan elkarriketa txiki bat sortuz. Proiektu berri batekin hasteko prest gaudela erabaki dugu eta izenburua ere jarri diogu: "Herri eskolak bihotz handiak".

**Zuriñe Zubillaga**

# Baietz asmatu!

Azken urteetan bezala, gaur egun gutxiagotan erabiltzen diren hitzen zerrenda bildu dugu. Ezagunak eginen zaizkizue akaso, aurreko urteko UEMA Egunen kalean zehar jarri baiginittun. Ia gai zaren hitz bakoitza bere esanahiakin lotzeko!

## Ardiakin lotutako hitzak dira batzuk:

- |                           |   |
|---------------------------|---|
| 1. artantzua:             | • ahari zikitua   |
| 2. arlentxa edo arkaxtea: | • ardiak bere bildotsa maite ez duenean                 |
| 3. betutxa:               | • ardiek jateko tresna                                  |
| 4. alondoa:               | • ardiek eta antxumeek lepotik zintzilik duten koxkorra |
| 5. mutxitea:              | • bi urtetik aurrera                                    |
| 6. gingilua:              | • hiru urtetik aurrera                                  |
| 7. gaitsetsa:             | • urtebete betetzen duenean                             |

## Etxe inguruan egoten diren tresnak eta janarik beste hauek:

- |                  |  |
|------------------|--|
| 1. talamantenua: | • ateari eusteko puntala   |
| 2. talaburnia:   | • kolunpioa  |
| 3. marrukoa:     | • redondoa   |
| 4. laratza:      | • taloak erretzeko zartari xapala                                      |
| 5. zangulua:     | • tximiniko katetik zintzilik egoten den gantxo                        |
| 6. pazia:        | • saski ttikia, kirtenik ez duena                                      |
| 7. atalaga:      | • taloak egiten segitzeko sutondoko burnia                             |
| 8. burrunzia:    | • metalezko ontzia, baldea   |
| 9. minaserea:    | • inauterietan mozorrok erabiltzen duten burnia janari puskek sartzeko |
| 10. korokoa:     | • gaztarekin egindako taloa  |

## Bukatzeko, esaera batzuk. Ze egoeratan erabiliko zenituzke?

- |  |   |
|--|---|
| 1. tokatzen astori konpittek:                      | • norbaitek zerbait aditu edo entenditu nahi ez duenean               |
| 2. eroa zeok errotaria:                            | • norbaitek txorakeriaren bat esaten duenean                          |
| 3. gero izango dia Ataungo festak:                 | • zerbait hurrengo egunerako uzten denean                             |
| 4. horrek bado Porrostako errekatik:               | • norbettek dotore jartzeko intentzioa izan bai, bino alperrik denean |
| 5. negarra ta parra, xaguxarrakin ezkondu beharra: | • gauzak geroko uzten direnean  |
| 6. bihar berriz eukiko ttu hankak ihar:            | • momentu bateko umore aldaketa                                       |

<p><b>ESARA ZAHARRAK:</b></p> <p>8. burrunzia: inauterietan mozorrok erabiltzen duten burnia janari puskek sartzeko</p> <p>9. minaserea: saski ttikia, kirtenik ez duena</p> <p>10. korokoa (salsan): redondoa (salsan)</p>	<p><b>ERDIAKI BUNBUZKORAK:</b></p> <p>1. talamantenua: taloak egiten segitzeko sutondoko burnia</p> <p>2. talaburnia: taloak erretzeko zartari xapala</p> <p>3. marrukoa: gaztarekin egindako taloa</p> <p>4. laratza: tximiniko katetik zintzilik egoten den gantxo</p> <p>5. zangulua: kolunpioa</p> <p>6. pazia: metalezko ontzia, baldea</p> <p>7. atalaga: ateari eusteko puntala</p>	<p><b>ERDIAKI BUNBUZKORAK:</b></p> <p>1. tokatzen astori konpittek: norbettek dotore jartzeko intentzioa izan duenean</p> <p>2. eroa zeok errotaria: norbaitek zerbait aditu edo entenditu nahi ez duenean</p> <p>3. gero izango dia Ataungo festak: gauzak geroko uzten direnean</p> <p>4. horrek bado Porrostako errekatik: norbaitek txorakeriaren bat esaten duenean</p> <p>5. negarra ta parra, xaguxarrakin ezkondu beharra: momentu bateko umore aldaketa</p> <p>6. bihar berriz eukiko ttu hankak ihar: zerbait hurrengo egunerako uzten denean</p>	<p><b>ERANTZUNAK</b></p>
---	--	---	--------------------------



# Goizuetako hizkera aldatzen ari da?

**E**uskarari buruz askotan idatzi dugu Xapon, eta ikuspegi askotatik: ia osasunez nola dagoen Goizuetan, bere azentua nolakoa den, bertako hitz berezik ere biltzen ditugu azkenaldin... Oraingon, Goizuetako hizkeran bertan jarriko dugu arreta. Eta landuko dugun gaia ia aldatzen ari den izanen da. Zuri zer iruditzen zaizu, irakurle? Seguraski, baietz esango dutzute, bino batzuk gutxi aldatu dela, eta beste batzuk berriz asko aldatu dela. Etxetik etxera hizkera aldatzen dela pentsatzen duenik ere bada. Eta iritzi guztiak zuzen egon daitezke, nondik begiratzen den edo zerekin konparatzen den.

Lan honetan, hizkuntzaren ezaugarri zehatz batzuetaz eginen dugu saioa, horietan jarriko dugu lupa. Adibidez, azken parrafo honetan bertan, badira amarjin bat gauza Goizuetan beste modu batera ere aditu daitezkeenak. Zuk nola esango zinueke?

- (eg)inen / (eg)ingo
- esan / san
- aditu / entzun
- jarri / patu
- badi(r)a (amarjin bat gauza) / badaude (amarjin bat gauza)
- zehatz / konkretu
- adibidez / konpaziora / por ejemplo

Zeren arabera erabiltzen dugu bat edo beste? Zeren arabera aldatzen dugu? Horrelako galderak erantzun nahian aritzen da soziolinguistikaren adar bat, bariasionismoa deitzen dena. Azterketa horietan, gizarteko talde bakoitzean gertatzen dena aztertzen da. Nola erabiltzen dute hizkuntza emakumeek eta gizonek, gazteek eta adinekoek, ikasketa asko eta gutxi dituztenek? Horrelako galderak erantzun nahi izaten dituzte.

Goizuetako hizkerarekin horrelako ikerketa bat eginez gero, zer ikusiko

genukeen jakin nahi izan dugu oraingoan. Horretarako, grabaketa batzuk egin dizkiegu Goizuetako 19 lagunei, tartean gazteak eta adinekoak zeudela: gazteak 18 urtetik goitikoak ziren, eta adinekoak 65etik goitikoak. Grabazio horietan hizkuntza-ezaugarri batzuk aztertu ditugu eta bakoitza zenbatetan agertzen den ikusi. Hizkuntza-ezaugarri horiek Goizuetan modu batean baino gehiagotan agertzen direnak dira, goian zerrendatu ditugunak bezalakoak. Adibide hauetan, aurreneko ezaugarria (ezkerrekoa) jo dugu Goizuetakotzat eta bigarrena (eskuinekoa), Goizuetan ere erabiltzen bada ere, berriagotzat jo dugu. Ondorengo hauek dira lan honetan aztertu ditugun hizkuntza-ezaugarriak:

Elkarrizketatuei egindako grabazioetan ezaugarri bat edo beste zenbatetan erabili duten kontatu dugu. Eta gaztea edo adinekoa den kontuan har-

tuta, bi talde egin ditugu. Hurrengo orrialdeko lehendabiziko grafikoak gazteek (horiz) eta adinekoek (grisez) bertako hizkerako ezaugarria zenbatetan erabili duten erakusten du:

Lehendabiziko grafiko horretan, normalean adinekoek bertako ezaugarria gehiagotan erabili dutela ikusi dugu eta, kasu batzuetan, adinekoek bakarrik erabili dutela. Hori da -koz eta 'eskuara' ezaugarrien kasua, gure grabazioetako gazteek ez baitute inoiz ere 'delakoz' edo 'eskualduna' bezalako adibiderik erabili, 'delako' edo 'euskalduna' baizik. Ezaugarri gehienetan, adinekoetatik gazteetara aldea badago hizkuntza-ezaugarrien erabileran, beheko ezaugarrietan izan ezik: 'biño' erabili dute gazteek eta adinekoek gehienetan (ez 'baño'), baita 'deus' (eta ez 'ezer'), yota hotsa (eta ez jota) ere.

Motzean esanda, Goizuetan ere, beste hizkeretan gertatzen ari dena ikusi


	HIZKUNTZA-EZAUGARRIA	EZAUGARRI MOTA
1	aferesia bai / ez (karri / ekarri...)	fonologikoa
2	/j/ edo /x/ hotsak (yan / jan...)	fonologikoa
3	-ikan / -ik (zertikan / zertik...)	morfologikoa
4	geroaldiko -en / -go (izain / izango...)	morfologikoa
5	kausazko -ko(t)z / -ko (delakotz / delako)	morfologikoa
6	arrunt / oso	lexikoa
7	bakotxa / bakoitza	lexikoa
8	benpe, benpeñen, bede / behintzat	lexikoa
9	biño / baño	lexikoa
10	eskuara / euskara...	lexikoa
11	eztikit / eztaikit...	lexikoa
12	gunun / giñun...	lexikoa
13	paratu / jarri	lexikoa
14	zerbette / zeoze	lexikoa
15	deus / ezer	lexikoa

dugu, alegia, euskara batuan erabiltzen dena gero eta gehiago erabiltzen dugula gure eguneroko hizkeran. Ez gazteek bakarrik, ordea. Ikasketa-maila altukoek eta erdialdeko euskararekin harreman asko dutenek ere joera bera erakutsi dute, gehienetan. Batez bestekoak kontuan hartuta, ikasketa-maila altuko hiztunek (ikus bigarren grafikoan zutabe horiak), gutxiagotan erabiltzen dute Goizuetako ezaugarria ikasketa-maila ertainekoek baino (erreparatu zutabe gris ilunari).


Egin dugun ikerketan ikusi dugunaren arabera, badirudi hizketaren aldaketa lotua dagoela dugun adinarekin eta ikasket-mailarekin, eta beste euskalkietako hiztunekin dugun harremanarekin. Hala ere, esan behar da sakonago aztertu behar den gaia dela, eta hau ikerketatxo bat besterik ez dela.

Lerro hauetatik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu gurekin grabaketak egitera animatzen diren lekuko horiei denei. Zuen parte hartzerik gabe ezingo ginuke deus ere egin. Eskerrik asko!!


## BERTAKO HIZKERAREN ERABILERA (%)



## IKASKETA MAILA (%)



## ERDIALDEKO EUSKALDUNEKIN HARREMANA (%)






iruditan

# Goizueta iruditan

Orriotan ikusiko —eta gozatuko— dituzun argazkiak Zabalteneko Jexux Mari Apezetxeak egin ditu. Kamara eskuetan duela ibiltzen da askotan, eta herrian edozein ekintza antolatzen denean ere beti argazkiak ateratzen aritzen da.

Herri polit askoa da Goizueta, ez dago esan beharrik, eta argazki hauek guztiek ideia hori berretsi egiten dute. Goizuetako hainbat txoko dituzu hemen ikusgai, zure begientzat gozagarri.









## bertso txokoa

O rduan berria zen atal hau aurkeztu genuenean aurreko Xapnon, herriko bertsolariek idatzia eta Goizueta edo goizuetarrak gaitzat hartutako bertsoak argitaratuko genituela esaten genuen. Ba, ordukoek bezalaxe, aurtengo aldizkari honen orrietan irakurgai dituzuen hauek ederki betetzen dituzte baldintzak, Esteban Arozenak (Sarran, 1956) idatzia baitira 1995ean Joxe Mari Bakeroren omenez.

Aurtengo otsailean bete zituen 50 urte Yandeneko Joxe Mari Bakerok. 17 urterekin debutatu zuen lehenengo

mailan Real Sociedaden (1980) eta 8 denboraldi jokatu zituen Donostiako taldean 2 liga eta Errege kopa 1 irabaziz. 25 urterekin, 1988an, F.C. Barcelonak eraman zuen 300 milioi pezetan truke. Garai haietarako dirutza ikaragarria zen hau. Han eman zituen Bakerok bere urterik onenak historiako Barça hoberenaren izar bihurtuz. 4 liga eta Europako Kopa 1 irabazi zituen Joxe Marik, besteak beste, Barcelonarekin. Espainiako selekzioarekin ere jokatu zuen 30 aldiz. 1997an utzi zuen futbola jokalaria gisa. Ondorengo urteetan zenbait talderen entrenatzaile

izan da Yandenekoa, Real Sociadako, esate baterako.

Idazleari buruz aipatu, bertsozale eta bertso idazle amorratua dela Esteban Arozena. Herrian bere garaian antolatzen ziren lehiaketaz gain, Iruñeko Udalak antolatzen duen Nafarroako Egile Berrien Literatur Lehiaketan ere parte hartu zuen 1996ean (2. Postua), 1997ean (3. Postua) eta 1998ean (irabazle).

Joxe Mari Bakerori idatzitako hauek lehenengo saria jaso zuten 1995ean Herriko Euskara Batzordeak antolatutako bertso idatzien txapelketan.

(1) BERTSO LEHIAKETARAKO  
DIEALDI NABARMENA  
TA BERTAN PARTE HARTZEKO  
EMAN ZIGUTEN ORDENA.  
AURTENO EDIZIOA  
GUTXIENEZ SEIGARRENA  
ETA SUERTATU DEDILA  
ORAIN ARTEKO ONENA.  
GAIA PENTSATZEN HASITA  
DEUS BURURATZEN EZ DENA,  
NERETZAT BEHINTZAT HORI DA  
LANARIKAN OKERRENA  
AZKENIK ERABAKIA  
BEHAR BADA ERREZENA:  
HEMEN GORAIPATUKO DUT  
HERRITAR EZAGUNENA.

(2) TAILARI DAGOKIONEZ  
EZ IZAN ARREN BIKAINA  
DAGOENEO EGIN DU  
HORREK HAINBESTE AZAINA.  
NAHIZ BATZUTAN HANKA HAUTSI  
ETA BESTETAN EZPAINA  
BERE LANBIDE HORRETAN  
JOA DU MUNKUKO GAINA  
EGIAK ESAN NAHI DITUT  
EZ DUT NAHI INOR ENGAINA  
DANTZATUZ BOLIGRAFOA  
EDO DANTZATUZ MINGAINA  
NI HORREN BERRI EMATEN  
GAUR SAIATUKO NAHIZ BAINA  
BERTSOZ EZINGO DUT ESAN  
HARK MEREZI DUEN HAINA.

(3) YANENEAN JAI OA DA  
HORRETAN EZ NABIL OKER,  
BERE AURRETIK BAZITTUN  
BESTE LAU SENIDE EDER.  
JOXE ETA LURDESENTZAT  
KOPURU HAU EZ ZEN EZER  
TA HAMAIIKAKO TALDEA  
OSATUA ZUTEN LASTER.  
IRISARRIKO FRONTIOAN  
LEHENENGO OSTIKO TA LASTER  
GEROZTIK IKUSI DITU

MUNDUKO HAINBESTE BAZTER.  
EUROPA OSOAN DAUDE  
BERE ARGAZKITA POSTER  
HORI GUZTIA LORTU DU  
LURDESENTALORI ESKER.

(4) LEHEN MAILAN JOKATZEN ZUEN  
HAMAZAZPI URTEREKIN  
HAMAIIKA GOLA SARTUAZ  
BURUZ ETA HANKAREKIN.  
LIGAKO TITULUA RE  
LORTU ZUEN ADIN HORREKIN  
GIJONEN JESUS ZAMORAK  
SARTUTAKO GOLAREKIN.  
IRAILERAKO ZITA  
EUROPAKO KOPAREKIN  
BAINA TOPO EGIN ZUEN  
BULGARO KABROI BATEKIN  
BELAUNA TXIKITU ZION  
INTENZIO TXARRAREKIN  
URTE BETEAN EZ ZION  
BERRIZ BALOIARI EKIN.

(5) BAINA ONGI SENDATZEKO  
IZAN ZUEN BALOREA  
ETA LASTER ZEN BAKERO  
LEHEN BAINO ASKOZ HOBEA.  
BERE KAPAZITATEAN  
BETI IZAN DU FEDEA  
HORREGATIK HARTU ZUEN  
BARTZELONAKO BIDEA.  
KATALUÑAN MAITE DUTE  
GOIZUETAKO LOREA  
ZELAIATIK KANPO JATORRA  
ZELAIETAN DOTOREA.  
ITZULPENERAKO ERE  
BADU ABILIDADEA  
HEMENDIKAN FLOR ERAMAN  
ETA HAN SORTU LOREA(\*)

(6) JOXE MARI PORTATZEN DA  
BETI ZINTZO TA ONDRADU  
ZALEGOARENTZAT BEHINTZAT  
IRUDI EDERRA BADU.  
BARÇAN ERE LORTUA DU

KAPITAINA BATEN GRADU  
BAINA BERE KONTRA ERE  
BADITU HAINBESTE ALU.  
DONOSTITIK JOAN ZENEAN  
KRITIKAK ZIREN UGALDU,  
HONELAKO ARRAZOI BAT  
BAINO HORTARAKO INORK  
ARRAZOIRIKAN BAI AL DU?.  
REALAK EZ ZUEN HONEKIN  
DIRU ASKORIKAN GALDU,  
DEBALDE EROSI ETA  
HIRUREHUN MILOIEN SALDU.

(7) HERRI MINA HORTXE DAUKA  
BIHOTZEAN BERO-BERO  
ETA BETI EZPAINETAN  
"NI GOIZUETARRA NAUK GERO".  
BAINA DENON GUSTOKOA  
OSO ZAILA DEN EZKERO  
BETI HOR AGERTZEN DIRA  
GAIZKI ESALEAK EDO.  
SELEKZIOEN KONTUAK  
SORTZEN DU HAINBAT ENDREDO  
ENTZUTEN DA EGUNERO:  
"ESPAINIAKO KOLOREZ  
EZ HADI JANTO BAKERO"  
EZ LUKE HOR JOKATUKO  
EUSKADIKOA BALEGO.

(8) HONEKIN BUKATZEN DIRA  
GAUR NERE BERTSO BERRIAK  
NAHIZ LUZE XAMARRAK IZAN  
EZ DITUT ESAN ERDIAK.  
HALARE EZIN OSATUZ  
JOAN DIRA UNE LARRIAK  
BAINA NOLA EDO HALA  
HEMENTXE DAUDE ZORTZIAK.  
SAIATU NAIZ GORAIPATZEN  
BAKEROREN IZERDIAK  
BAINA NIK EZIN ORDAINDU  
MEREZIMENDU GUZIAK  
ELKARTURIKAN BATERA  
XANTIANAI TA BIAK  
OMENALDI BAT ESKAINI  
BEHAR DIZUTE HERRIAK



# Yakenele ("eskerrik asko") Wukro

**2012** ko irailean Euskal Herria atzean utzi eta Etiopiarra joan zen Ane Taberna Wukro herrian kooperante lanak egitera, eta bertan bizitutakoa Xaporen irakurleokin elkarbanatu nahi izan du.

AFRIKA; hain arrotza ta hain urruna. Askotan aittu, kusi ta irakurri izan du kontinente honeri buruz, biño ze desberdiña den distantzitik jakittea, o bertan esperientzia berri bat bizitzea.

Etiopia izan zen nere bertako asentamendua. Herrialde hau Afrika Beltzeko adarren kokatua do, kontinente-ko ipar ekialden. Salto handia izan zen munduko herrialdeik aberatsanatako batetik (Alemanitik) bertara in nuna. Addis Abeba hiriburua izan zen lurrartzen zapal dutako aurreneko hiria. Halere, ez zen luzaroko izan, segidan estatuko iparraldera, zehazki Tigray zonalden don Wukro herrira muittu baintzan. Lehendik kontaktun jarria nitzan bertan bizi den Angel Olaranekin (bertakontzat Abba Mala-

ku). Beronek urtek ta urtek damazkio misionero gisa lan haundia iñez, herrialde honen ongizateko.

Milaka ixtori ta errealtate kontatu littezke bertako egoerari buruz, biño ni neonek bizitutako esperientzin oinarritutako naiz.

Bertara Abba Malakuk aurrera eramaten ttun proiektu sozialatan parte hartzera arrimatu nitzan. Lehenbiziko eunatan bertako egoerari buruz azaldu ziaten, ta esku hartu nezaken proiektun berri man. Hor jakin nun gizarte langilen proiektutara zentratuko zela nere ittekoa. Adar desberdin asko ttuzten arren, haitako batzutan parte hartzeko aukera izan nun; hala nola, umezurtzari babesia, nutrizio proiektua, HIESan prebentzioa, atentzioa ta launtza, bakarrik bizi dian emakume helduk...

Bakarrik bizi dian emakume heldun kasun, pare bat alditan beran itxetara yon giñan behar zutenan launtzera. Gehienbat garbiketa kontuk izaten

zian; arropa garbitzera, itxea garbitzera ta txukuntzera... Orokorren, bizi maila duinxio bat izatera bideratzera.

Beste proiektu bat, nutrizio proiektua, bertan umek pairatzen duten desnutrizio egoerari aurre itteko modu bat da. Programa hontan 200 ume inguru zauden momentu hartan. Eunero 50 ume inguru tratatuk izaten dia klinikan. Bertan pisatu ta neurtu itten ttuzte haurrak, ongi elikatuk dauden edo ez ikusteko. Helburua umen nutrizio maila minimoa mantentzea da, %80 inguru. Hortik betti baldin badaude, launtza modun irina, bitaminak ta mineralakin intako alimentu bat jasotzen dute, garapen egoki bat bermatzeko helburukin. Programa hontan hiru hilabetez eoten dia umek; iraotakon nutrizio maila minimora alletuz gero, programatik atetzen dia. Oaindik maila deseokin baldin badaude, beste hiru hilabetera luzatzen zite jarduna. Nere esku hartzea ez zen oso esanguratsua izan proiektu hon-

tan, daoneko martxan baitzon ta ongi funtzionatzen baito. Halere bertara gerturatu giñan pare batzutan ongi te zion kusterera ta ahal giñunen launtzera.

Umezurtz ta HIESa dun jenderi daokinez berriz, goizatan bixitak itten ginittun beran itxetara. Galdetegi moduko batzuk iraozten ginittizten gurasori, gai desberdiñak hartuz: hezkuntza, osasuna, higieenea, harreman sozialak... Horrekin ikusiz zer moduz zion bakoitzan garapena ta beharrezkoa izanez gero esku hartuz. Kontun hartu bar da Etiopian HIESa oso hedatua dola. Halere prebentzio kanpainari esker ta pixkanaka itten ai dian lanari esker, zorionez geroz ta heriotza gutxio kartzen tto gaixotasun honek.

Aurretik aipatu ttuan proiektu horiek goizatan zehar lantzen ginittun. Arratsaldeko oso desberdiñak zian. Abba Malakun programan dauden umezurtzak oaindik eskolan hastekok zianez, bazkal ondoren gure itxeko pation elkartzen giñan eunero. Bertara ume dextente arrimatzen zian. Umezurtz horiek arduradun bat dute, bakoitzan guraso funtzioa betetzen duna. Arratsaldetan tortzen zianen joku desberdinak itten ginittun. Batzuk kirolatan ibiltzen zian gustora, saski baloia, bole-a, futbola... Beste batzuk jolas simbolikon zentratzen zian. Ta gainontzekok soka saltoa, harri koxkorakin jostaka... Ze material gutxikin, biño ze pozik. Gure gizarten beharrezko ez-tian milaka jostailu ta tramankulu dauzkiu, ta halere kejaka ibiltzen ga beti gehion esken. Han berriz, bizi duten egoera bizitzen dutelare, etzuten aurpeitik parramurririk kentzen. Hango umen besarkadak, muxuk ta zoriontasuna sentitzek, horrek bai ez-tula prezioik.

Teorian oso argi daukiu elikatzea, hezkuntza, osasuna ta etxebizitza denantzat oinarrizko eskubidek diala. Biño gero argi ta garbi kusten da mundun zehar eskubide horien urraketa ta hori onartezina da. Kooperaziok asko do ikusteko han, biño sistema ekonomiko internazionalak European alde jokatzen do, oso modu desleialen. Bertako uia kentzen du diru hori aberas-



tasunez suntsitzen ai den gizarte batera eramateko. Halere denan indarrez pixkanaka aldatzen saiatu bar giñuke, tantaka tantaka sortzen baita itsasoa,

ta batera aldaketako olatu izan baiginttezke. Bizitzako lekzio garrantzitsu bat man izanagatik, Yakenele (Eskerrik asko) Wukro.



# Julen Apezetxearekin hizketan, meditazioaz



**A**startero hainbat herritar biltzen dira udaletxeko ganbaran meditazio saioak egiteko Julen Apezetxearen gidaritzapean. Berarekin elkartu gara bere lanaren inguruko nondik norakoak bildu eta Xaporen irakurleei eskaintzeko.

“Bizitza matte dut eta bere edertasunaren magia modu sakonean adoratzten dut. Eskerrak ematen ditud egunero Mirari honen parte izateagatik”.

## • Nola murgildu zara meditazioaren munduan?

Egia esan ttikitatik naturalki eta intuitiboki bizi izan ditut meditazioa eta

garunaren egoera ezberdinak, amets luzidoak, izpirituekin kontaktua... Horrek denak mundu espiritualaren ikerketa eta ikasketa bide batean murgiltzera eraman nau azken urteotan.

## • Baserritarra izateak eraginik izan du zure bizimoduan?

Dudarik gabe. Niretzat naturarekin kontaktuan bizitzea nahitaezkoa izan da beti eta hala izango da. Ama Natura matte dut eta errespetu handia diot. Bizirik dauden mendiak, harriak, errekek, landareak, animalia guztiak... baita Kosmosean bizi diren eta gure eboluzioan betidanik lagundu izan gaituz-

ten izaki guztiak ere. Existitzen den guztia bizirik dagoela sentitzen dut, ikusten dut eta badakit hala dela. Hau betidanik esan digute gure arbaso jakintsuek eta orain zientzia hasi da hortaz konturatzen. Bizitza matte dut eta bere edertasunaren magia modu sakonean adoratzten dut. Eskerrak ematen ditud egunero Mirari honen parte izateagatik.

## • Badakigu Kanadan ere izana zarela. Zer egin duzu han?

2010ean Marilyn Rossner handia ezagutu nuen eta beka bat eman zidan Montrealgo Zientzia Integraleko

Institutu Internazionalera joateko. Bertan Mundu espiritualaren eta zientziaren artean aurkitu dezakezun guztia ikasteko aukera dago. Mediumnitatea, Yoga, Benetako Txamanismoa, Sanazioa, Meditazioa, Filosofia, Metafisika... Munduko Erlijio mistiko eta zientzia modernoa, tradizio, tribu eta kultura guztietako jakinduria ikasi eta lantzen da. Batzuk Harry Potter-en eskola deitzen diote. Niretzat opari ederra da Marilyn Rossner eta beste pertsona eredarri hauen ikasle eta familia izatea.

- **Musikari profesionala izan eta irakasle ikasketak ere burutuak dituzula jakinda, bateragarria al da musika meditazioekin?**

Bai, noski. Intentzionaturiko musika eta soinua meditazio egoeran murgiltzeko giltza dira. Soinua hain indartsua da, sortu eta deuseztu egin dezakeela. Soinua bibrazioa da eta kristalezko kopa bat txikitu dezakeen bezalaxe, trauma emozional bat sendatu dezake edo beste plano existentzietarako ateak ireki, hildako jendearekin kontaktatzeko edo goreneko planoetako Maisu-Maistrekin ikasteko. Errealitate Holografikoa eta zure burua hobeto ezagutzen laguntzen dizu. Hortik dator mundu guztiko tradizioetan soinua, musika eta hitzak erabili izan direla beti. Munduko Maisu-Maistra haundiek Egiptotik hasi, Grezia, Tibet, India, Ipar eta Hego Amerika, Zelanda berria, Hego Afrika... errespetu itzela izan diote beti soinua erabiltzeari, bai baitzekiten soinua indarra zein den.

- **2012ko abenduaren 22an "aro berriaren etorrera" ospatu zenuten Goizuetan. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Oso esperientzia sakona, hunkigarria eta aberasgarria izan zen. 40 bat pertsona elkartu ginen Iberoko putzuan. Jendea, Euskal Herri osotik eta baita Madriletik ere etorri zen. Ospakizun politta izan zen. 26000 urteko aro berriari ongiatorria emanez, naturaren



indarrekin bat eginez, meditatuz, kantatuz eta dantza eginez ospatu genuen. Berriz ere eskerrak eman nahi dizkiuz, etorri zineten guztiei.

- **Afizioa ofizio bihurtu duzula esan al daiteke? Nola eta non ari zara lanean?**

Beti gustatu izan zait nik ikasten dudana besteekin konpartitzea, eta beti dago ikasi nahi duen jendea han eta hemen. Kanadatik etorri naizenetik, egia esan, afizioa ofizio bihurtu dela esan dezaket, bai. Jendea laguntzea matte dut, debozioz eta bizi pozez, saio bakoitzean, eman dezakedan hobere-na ematen saiatzen naiz. Orain bertan astero lau meditazio saio zuzentzen ditut Zegaman, Billabonan, Hernanin eta Goizuetan. Horrez gain sanazio eta terapiak egiten ditut Billabonako kontsultan eta etxetara ere joaten naiz. Tarteka Estatu Batuetara ere joaten naiz nire maisu den Zacciah Blackburn-engana laguntzaile moduan lan egitera eta gehiago ikastera. Irailean berriz, Montrealera bueltatuko naiz gutxienez beste urtebeterako, masterra bukatu eta doktoratuarekin iker-

keta sakon batean murgiltzera. Ofizioak afizio izaten jarraitzen du! Jejej...

- **Zer egin behar du jendeak Goizuetako meditazioetara joateko?**

Ba, aipatutakoari buruz ikasi nahi izanez gero, asteartero etorri zaitezke arratsaldeko 6,30etatik 8etara. Nire esfortzua eta dedikazioa baloratzen duen jendearen borondatearen truke egiten dut lana, eta oso gustora nabil Goizuetako udaletxean. Bide batez eskerrak eman nahi dizkiot udaletxeko jendea herriarekin kolaboratzeko aukera eder hau emategatik. Eta eskerrak asko zuei, Xapo aldizkariko bolondres guztiei, elkarrizketa honen bidez, mezu hau zabaltzea posible egitegatik.

- **Bukatzeke zerbait esan nahiko zenioke irakurleari?**

Egunero momentu bat har dezazula naturaren edertasuna apreziatzeko, maitatzeko, gozamen horretan arnasteko eta eskerrak emateko. Eta konturatu zaitezela zu ere edertasun horren parte zarela!



# Euskara

## Goizuetan garai batean

Jose Antonio Apezetxearekin eta Maritxo Salaberriarekin hizketan

**E**rreportaje hau egiteko bi herri-tarrekin egon gara kontu-kontari. Batez ere garai batean Goizuetan euskarak zuen egoera ezagutu nahi izan dugu euren ahotik; nork erabiltzen zuen, nork ez, non eta zertarako, debeku edo gaitzespenik izan ote zen, gazteleraren beharra eta abar. Hementxe dituzue Jose Antonio Apezetxeak (1928) eta Maritxo Salaberriak (1922) kontatutako bizipen eta oroitzapenetako batzuk.

### Gerra aurreko giroaz

Hamalau urte zituen Maritxok gerra hasi zenean. "Politika lehen-txio hasi zen nahasten pixkot. Nazionalistak-eta, reketek-eta, republikanok-eta... Hemen bazian hiruk. Batzuk izaten zuten opinio bat, besteek bestea... Hemen Berroeta ez bazen izan, ez zen eskualdunik deus izain, biño Berroetak in zun lan bat... el año 36, berak ekartzen zitun Hernanitik txistularia eta tanborrakoa, bere kontura, egunero, guri erakustera. Batzokia hartu zun, ta nahi zunak afiliatu nazionalista, bazian apuntatu zienak gizon asko. Aiton asko etortzen zian hain blusak, pipak ta zigarroa hartuta, kanta eskualdunak ta, haik erotu itten, gustatu itten".

Berroetak antolatutako festa batez oroitzen da Maritxo: "Patu zun eun baten festa eskualdunana, ta nahi zunak torri jatera, gazta zaharra, ardo barrika bat patu, ta baserritar guzik erotuk. Ta bakizu zein karri zun? Txirrita, ber-

tsotara. Gaizkittu ta hil in tzen, gazta ustel askoa janta".

1936ean "Gipuzkuko nazionalistan herri gehinatakoak izain zian, Donostin Aberri Eunen, gu re ordun jon giñan hara dantza bat ittera".

### Eskola

Eskolan ere, gerra aurrean ibili zen Maritxo. "Eskolan ez zuten hitzik itten

uzten eskuaraz. Maistra eondu zen Zarauzko bat, asko zikina ta asko balio zuna, biño etziun uzten hitz bat eskuaraz itten". Maistra bera euskalduna omen zen, baina euskaraz entzunez gero berehala esaten omen zuen: "Haz el favor! Erdaraz in behar, ta ez jakin (barrez dio). Obligatu itten ziun. Bera euskalduna zen, ederki zikin eskuaraz. Ez zun parrik asko itten, biño batzutan bai, guk saten ginittun astakerikin.

Gaizki saten ginittun ta! Biño gorra zen. Libruk ere, ez bagunun enteintzen, estudiatu, dena memorin in ta halaxe".

Beraien artean beti euskaraz aritzen omen ziren. "Badakizo ze pasatzen zen? Guartzibil asko zon, ta hain umek ikasi in zuten eskuaraz, eta haitxekin ikasi giñun guk erdara pixko bat". Eskolan ere beharko ikasi: "Klaro, han ez zen eskuaraz hitzik itten". Gerra hastean Zarauzko maistra hori kendu eta erdalduna etorri omen zen.

Joxe Antoniok, berriz, zortzi urte zituen gerra hasi zenean. Herriatik gertu bizi zen, eta eskolara joaten zen. "Eskolak seitzen zun 8 urtetan. 7tikan 8 urte bittartera, Marimielen bazen hor beste neskazahar bat, ta harekin dotrina ikasten genun. 14 urte arte eskolan, eta 14tikan 15 arte beste urtebete iraotzen zen gabeko eskola ta hartara ere jotzen nitzan ta nik orduntxe ikasi nun gehina. Maisu leitzarra gunun, Sebastian, eta 'oaintxe ai za, oaintxe, eskola ikasten oaintxe ai za zu' saten tzian".



“Erakusten zutena” ikasten omen zuten eskolan, “suma, restar, dividir ta hoixek”. Maritxoren maistrak ez bezala, Joxe Antoniori eta maisuak euskaraz egiten omen zien beti: “Eskolan bertan dena eskuaraz. Erdarikan ez zen hemen aitzen.”

### Alkate, idazkari, apaiza...

Joxe Antonioreen esanetan “hemen ordun erdaldunak zian sekretarioa ta medikua, ta alkatea, Espille. Ayuntamentukoa dena eskualduna izaten zen, ta alkatea kastellanoa. Alkatek e berak nahi zuna erki enteintzen zun, bitara aitzen zen saltsero hoitakoa zen. Sekretarioa re kanpotik torria eta erdalduna, eta hora ere nagusi”. Maritxok ere aipatu digu alkatea, gerra aurreaz ari dela: “Espille, kamineroa, kastillanoa zen, hora zen arrunt gaixtoa, ta jotzen zen dena esatera, guartzibilari, guk eskuaraz kantatzen bagiñun ‘gora euskad’ eta hoiiek, haitara jotzen zen...”. Aguazilak, berriz, ez omen zekien erdaraz: “Txatok (aguazila) erderaz etzikin, ta bandoa jo behar zunerako Pio launtzera jotzen zen, etzikizkinak esatera. Bietara eramatten zuten, euskaraz ta erdaraz”. (J.A).

Apaiza, berriz, euskalduna izan da Goizuetan beti. “Nola ba, kastellanoa kartzen bazo ezta iñor elizara join” esan digu barrez Maritxok. Meza latinez izaten omen zen, eta sermoia euskaraz.

### Mediku erdalduna

Medikua ez zen euskalduna izaten, ordea. Gerra aurretik “Republikanoa gaixtoa zen, Ramiro zen ordun hemen, medikua, ta gaixtoa zen ordun, erdalduna. Etzun aittu nahi izaten euskaldunikan”. Gerra ondoren “Arroyo ere hala zen, (gaixtoa) bueno, badia opiniok” (M), “medikua berriz ukerroa, Arroyo (J.A)”. Nola moldatzen ote ziren mediku erdaldunarekin galdetuta, “Ordun, 'si' ta 'no' besteik ez ginikin ta haiek noiz san e ez ginikin biño nola-bitte arreglatzen giñan”, “kastellanok nonbetteik azaltzen zian ta hemen nausi jartzen zian ta hain menpe eon behar hemen gu denak” (J.A). Mari-



txoren ustez “propio ekartzen zittuzten kastellanok, alkatek eta ayuntamentuk, biño hemen eskualduna behar zen. Baserritan ta erdaraz jakin ez ta”. Zergatik ekartzen ote zituzten ba, propio erdaldunak? “Opinioia”.

### Bertsotan aritzea, galarazita

Joxe Antoniori eta bertsotan aritzea galarazi omen zieten.

“Koadrilla juntatzen giñan bertso-tan; Xalto ta Aiarrakoak, ta Ortzeriko Joxemiri... hola, koadrilla haundi bat, Pellon itxen. Hamar dozena bat laun beti ibiltzen giñan, batek atere tto kakahuetek, bestek gazta, bestek kafea... Broma bat iraozten giñun ikiarria. Batek besteri puntu patuz aitzen giñan, kriston parrak itten ginittun garai baten. Ta, guartzibil pareja bat jona han zon, mostradoren, Pellonen, ta gu parrrez han gere ta, mahaija jo zun, ta jarri zen, kuido, e, hairi parrin, ta fuera handikan denak, ta aurren hartuta hor bialdu giñozen hoben-hobenen geudela”.

Hamasei-hamazazpi bat urte izango zituen Joxe Antonio. Ordutik aurrera beldurra hartu omen zioten bertsotan aritzeari. “Beldur bat sortu ziuten, haiek kargu hartzen ziuten ta! Kuidau! aurren bialdu giñozen ta handik. Gero beti beldurka ibiltzen giñan. Biño hala re berriz broma ikaragarrik iraozten ginittun. Guartzibilak jon-etorri ibiltzen zian, ta batzugin banaukin konfiantza, biño denakin izaten zaila zen”.

### Goizuetatik kanpora aterata

Gazte denboran herritik atera behar izan zuten, gaztekeraz ongi jakin gabe.

Joxe Antonio soldaduska egitera joan zen, Burgosera. Ongi oroitzen da hango kontuez. “Bagenun erdaraz ikasteko deseoa. Pittiko bat ibiltzen non (erdara). Han izandu nun Santanderino bat, maisu omen zen, arrunt jatorra, ta esaten zian: 'vasco, ven aquí, a la escuela'. Hola itten zian, erdaraz, nik ere bokailu bat edo beste ematten nittin, ta ongi eramatten gunun, bera



re jatorra zen. Gero destinatuz zuten pena eman zian, harekin franko ikasten ai nitzan (erdaraz)”.

Euskaldunak ba omen ziren, baina haiekin elkar ulertzeko ere komeriak, nonbait. “Bizkaitarrak zian jeneralen euskaldunak zianak, biño hitzik ez enteintzen euskaraz biek hasita, azkeneko esan nin: 'hi euskalduna? hitzik ez dit entenditzen, txiu-txiu-txiu-txiu... nik etzekit, esaziak erdaraz'. Erdaraz esan zun, orduntxe pixko bat enteinttu giñan”.

Maritxo, berriz, Donostira joan zen. Erizaintza ikasi zuen. “Ni Donostira jon nitzan. Han parientek eotten zian ta jon nitzan eun batzuk pasatzera ta denbo asko eon nitzan itxetik ateregabe. Kafea erostera ta txikitza jotzen nitzan, enkargutara ta pixkot... Gero in nitzan ospitalen praktikatan hasi ta han gehinak erdaldunak zian”. Donostin oso gutxi erabiltzen omen zen euskara. “Gu biño lehenokok e eskuaraz asko omen zikiten. Biño zaharrak, gaztek ez. Gero galdu. Amonak eta zaharrak asko izaten zian hitzeitten zutenak biño hain umek ez. Esaten dute denak zaila dela eskuara”.

### “Hablen en castellano”

Maritxo gogoratzen da beldurra izaten zela euskaraz aritzeko. “Bai, bai, ixildu itten ziñan guartzibilan aurren. Guartzibilak “hablen en castellano” esaten zuten”. Baina guardia zibilak bakarrik ez, “eskuaraz sumatutakon 'hablen en español' esaten ziaten gizasemek. Kalen izaten zen hori, lanen ez. Ospitalera jotzen ziñan praktikak ittera, deseaten eotten zian euskaldunak [langilea] izateko”.

### Erdaldunen umeak, euskaraz

“Kaminero kastellano batzuk etorri zian umekin ta haikin ikasi nun erdaraz gehina. Haiek euskaraz ere bai. Bazen guartzibil bat e hark e etzun hitzik itten torri zenen ta nola ikasita joan zen euskaraz!” (M).

Garai batean orain baino erdaldun gehiago izaten omen zen Goizuetan,

Ollingo meatzeetara eta familia erdaldun osoak etorrira. “Hemen jende asko izandu zen. Hor Añarbeko presa hori re itten ai ziala ta. Hain umek hemengokin laun itten zian ta denak eskuaraz ikasten zuen”.

### Erdara jakin gabe, motz

Bi goizuetarrek aitortu digute pena izaten zutela erdaraz ongi moldatu ezina. “Pena ba, ez gala deustako; izan banun senarra o erdalduna, biño denak eskualdunak. Ez bazo erdara, hemendik aterez gero motza gelditzen za” (M).

Joxe Antoniok ere halaxe uste du. “Niri galdera in batek: 'zuk, zere denbon ze mixeri izan ttizo, zertikan?' Eta nik, erdara falta. Eskuaraz moldatzen nitzan, erdaraz nola edo hala ibiltzen giñan”. Behar al zuten erdara? “Behar gunula bai, behar gunula baganakin. Behartu itten giñan. Eta behartzen gan denbon, nik hora falta harrapatzen nun... Nik dirua, gutxi asko beti izandu dut, diru faltan ez naiz ibili; jateko faltikan nik ez dut ezautu. Lana itten nun eta nik beti izandu dut jatekoa. Biño beti erdara falta hori. Hizketan hasi eta, ño, komertzio bat eramatten jakin ez. Ta hori da, motxa gelditzen da horrekin” (J.A).

Gauza ederra da erdara eta euskara, biak jakitea, bere ustez. “Baten erdaraz behartuko za eta besten eskuaraz, biño biek baldin badikizkizo, edozin lekutara jon zinezke. Gure atta re, nere modura, erdaraz ikasi gabe zentralen aittu zen 35 urte, ta harreri re tokatu zin, motorista esaten nion nik ordun, bigilante edo kastellanoa, Garcia. Gure attak berriz erdaraz jakin ez, ta esan men zin gutxi entenditzen zula erdaraz ta deskantsun hitzeitteko, presaka esaten bazun oaindik ukerro. Ta 'gutxi dakikela? Bate ez dikik hik' ta 'hik ba al dikik euskaraz?' Ta 'nik ez'. 'Ordun jodete!' erantzun men zin gue attak”.

### Zenbait bertso

Aita aipatuta, hara zer gogoratu zaion Joxe Antoniori: “Gero hor ibiltzen zian, zentralen Aizkorbek zirikatu itten zun [aita]. Eun baten Biutako presa altxa-

tzen aittu ta gero, zentralen ura falta, ura bajatu ta gero eun hartan nausik horrara etorrik izandu ta esan men zin: 'han ura behar dik ta seitzak auro ta bozak ura'. Lasterka jon omen zen Biutara, 40 minutun, ta jon ta urik ez”. Eta hara, ze bertso bota zion Aizkorberi orduan Joxe Antonioren aita zenak:

“Zentraletik presara  
korrika etorri naiz.  
Un verso medio vascuence  
la otra erdaraz  
el amo me ha dicho  
echa agua mas  
eztan lekutik botzen  
ez degu oso erraz”.

Horretaz gain, makina bat bertso kantatu dizkigu, buruz, Joxe Antoniok. Lasarte ere bertsolari ona zela dio, eta askotan ekartzen zutela Lazkao Txikirekin batera. Behin, Urrutiñean, Lasarte eta Lazkao Txiki han zirela, Berroeta zaharra ere han omen zen bere familian azalpenak ematen. Eta esan omen zuen: “nere kontuk bakarrik ez ttu aitu behar, oain bertso batzuk aittu behar ttu”. Eta Lasartek bertsoa bota zion:

“Bertso batekin esan nahi dizut  
zure pasadizu dena  
Xeberiano ez gaizki hartu  
nik men esaten duana  
seme-alabak hamar bazinttun  
ia osatu dozena  
antzu luzaron ez zan egonda  
zurekin ezkondu zena”.

Ikaragarri ongi hartu zun Berroetak”.

Lasarteren beste bertso bat ere kantatu digu. Honako hau ez omen da Goizuetan botatakoa, Joxe Antoniok ez daki non kantatu zuen Lasartek.

“Kriston tripaundi batek esan omen zin: 'Zu, Manuel paziako niri bertsoa'. 'Bertso bat nahi al tzo? Etzo gauza haundik eskatzen'. Ordun kantatu omen zin:

Hik ere holakua  
izan behar huan  
Zenbat txuleta ote duk  
sartuak barruan  
Asko jan ta ezin kabituz  
dabila larruan  
Hire moduko pranko  
badek Naparruan”.







## EZETZ ASMATU

Xaporen zenbaki honetako "Ezetz asmatu" ataleko argazkietan ume asko ikusiko dituzue. Umeak ziren argazkia egin zen momentuan, alegia, baina urte batzuk pasa dira eta aldatuxeak ditugu gehienak. Aldatu bai, baina oraindik aisa ezagutzeko moduan, ezta? Edo ez? Batzuk bai eta besteak ez hainbeste? Tira, ea denak asmatze dituzun, edo gehienak gutxienez.

Goizuetar horien argazkien ondoan, elizako garai bateko eguzki-erlojuaren argazkia duzu. Eta hor asmatu beharrekoa, hain zuzen ere, erlojuak ematen duen ordua da. Mol-datuko zara? Hala ez bada, galdetu dakien norbaiti, eta zer edo zer ikasiko duzu.



# Boteretsu

**N**eska lotsatia izan arren, larru beltzez janzten naizenean zeharo eraldatzen naiz, boteretsu bihurtzen naiz.

Nire harreman sexualak beti nahiko lasaiak izan dira, baina uda hartan Galder ezagutu nuen. Mutil zintzoa, lasaia, batzuetan gehiegi eta guzti, baina ongi moldatzen ginen. Hilabeteak pasa ahala sexuan zerbaiten falta sumatu genuen. Nire lagun minari komentatu nion gertatzen ari zitzaiguna eta berak liburu bat eman zidan, emakume guztien ahotan omen zebilena. Liburua bukatutakoan zer pentsa eman zidan, eta soluzioa izan zitekeela ere pentsatu nuen.

Egun hartan goiz esnatu, dutxatu, gosaldu, jantzi eta kalera irten nintzen, jostailu sexualak saltzen dituzten denda horietako batera joateko asmotan. Horrelako denda batean sartzen nintzen lehenengo aldia zen eta lotsatua sentitu nintzen. Erabat galduta nengoen denda hartan, gainera gaixtakeriaren bat egiten ari nintzen sentsazioa nuen. Beldur horiek denak gaindituta, bertako neskari esan nion laguntzeko eta ederki moldatu ginen.

Galderri mugikor bidez mezua bidali nion gauean gelditzeko, sorpresaxko bat nuela esanez.

Afaria prestatu nuen, mahaia dotore apaindu nuen kandela eta guzti, eta Galder etorri arte zain geratu nintzen. Txirrina jo zuen eta atea zabaldu nuen; bera ere ni bezain urduri zegoela sumatu nuen. Kontu batzuk esan eta mahaiaren eseri ginen afaltzeko asmoz. Komentatu nion zerbait berria probatu nahi nuela sexuan eta nigan konfiantzarik ba ote zuen, eta noski, berak baiezkoa esan zidan, eta ez bazitzaion gustatzen lasai esateko agindua eman nion. Bera begi zabal-zabalekin zegoen, ez baitzekien zer espero.

Nire gelara joan nintzen, poltsatik arropa berriak atera nituen, larru sintetikoaren usaina nabaritu nuen, eta

pentsa, usain hutsarekin bero-bero jarri nintzen. Larruzko soineko beltza jantzi nuen, goitik beherainoko kremaileira zuen, saredun mediak eta zapata orratz-takoidunak. Antifaz beltz bat ere bazuen, soinekoarekin bat egiten zuena. Eskuburdinak eta latigo txiki bat hartu eta gelako atea ireki nuen, kremaileira titi azpiraino jaitsiz. Nire titiek kanpora atera behar zutela ziruditen, hain estu nuen soinekoa!! Bera aho zabalik zegoen, begiratu nion eta esan: - Gaur oso gaizki portatu zara eta zigorra merezi duzu! Nire esana bete beharko duzu! Kendu arropak!! - Txintik egin gabe esana betetzen hasi zen, biluztu zenean ederra ikusten zen, zakila tente zuen eta ohean etzanda jartzeko agindua eman nion. Eskuburdinekin ohera lotu nuen, eta beste antifaz batekin begiak tapatu nizekion. Arnasestuka sumatzen nuen, bera hain ahul ikusteak berotu egiten ninduen eta boteretsu sentiarazi. Besoak eta hankak zabalduta, ezin mugitu, ezin ikusi... horrela ikustea, nire esanetara... berriak ziren niretzat sentsazio horiek denak.

Latigo txikiarekin poliki izter txoakoan eman nion eta kexa ito bat entzun nuen, beste bat barrabiletan eta kexa eta pote egin zuen, nire alua inoiz baino bustiago zegoen, zakil tente hu-

ra nahi nuen nire barruan sentitu eta bere gainean eseri nintzen, inoiz ez bezala gogortua zegoen! Poliki-poliki nola sartzen zen nabaritzen nuen, deskarga elektriko bat bezala pasa zitzaidan gorputz guztitik, "zenbat gustatzen zaidan..." pentsatu nuen, gora eta behera mugitu nintzen, baina bere eskuak faltan botatzen nituen, soltatu nuen, zezen baten indarrarekin buelta eman zidan eta nire gainean jarri zen.

Ez nintzen konturatu noiz pasa zen, baina ezin nituen eskuak eta hankak mugitu, eskuburdinak jarrita neuzkan!! Mingainarekin klitoria zirikatzen zidan, eskuekin titi muturretatik tira eginez plazer handia sentitzen nuen, garrasi egin nuen gozamenaz, nire barruan sartu zen eta indartsu egiten zuen bultzada, sartu eta atera, berriz garrasi egin nuen eta bere arnas estua sumatzen nuen nire belarri ondoan, gozamen garrasia entzun nuen, zakila atera eta nire gainean hustu zen.

Bat-batean esnatu egin naiz, izerditan eta busti-bustia, bazterrera begiratu dut eta han dago lagunak utzitako liburua, oraindik arnasestuka, segundo bat liburuari begira pasa dut eta konturatu naiz ametsa izan dela. Ideia bat bururatu zait.... gaur jostailu erotikoen denda batera noa.




# Zenbat zapela tto Aimar Olaizolak profesionaletan? Zein modalitatean?



## XIMON

- 12 txapela
- Lauterdin 5, banaka 5, parejaka 2



## MAÑOLI

- Totalean ... 9 zapela inguru..




## AMAIA UITZI

- 10 txapela
- Lauterdin 6, banaka 3, parejaka 1



## ELENA GARTZIA

- 12+1




## JUANITO ZABALETA

- 11 txapela
- Lauterdin 5, banaka 3, parejaka 3



## TXISPAS

- 9 txapela
- Lauterdin 5, banaka 2, binaka 2



## XUBIRI

- 11 txapela
- Lauterdin 6, banaka 3, parejaka 2




## ANGEL SALABERRIA

- 10 txapela
- Lauterdin 5, banaka 3, binaka 1



## M. CARMEN AZPIROZ

- 11 txapela
- Lauterdin 6, banaka 3, parejaka 2




## IBON

- 8 txapela
- Lauterdin 5, banaka 2, binaka 1



## TXURRI

- Pilla bat



## DANIEL NARBARTE

- 10 txapela
- Lauterdin 5, banaka 3, binaka 2



# ZURE TXANDA

## MAITANE APEZETXEA



### Nor da Maitane?

Goizuetako neska bat.

### Kostaldea edo mendi aldea?

Oporrak pasatzeko kostaldea, bizitzeko mendialdea.

### Oporrak pasatzeko leku bat?

Miami playa (Katalunia).

### Goizutan buelta itteko mendi bat?

Goizutatik Leitzako bidea.

### Goizutan ikustea merezi dun txoko bat?

Goiko iturri.

### Amabirjinak edo ihauterik?

Biek oso onak dia.

### Festatako egunik polittena? Edo ihauterietakoa?

Abuztuak 18, peña eguna.

### Zer aldatuko zenuke edo kendu?

Kendu deus ere ez.

### Amets bat...

Zuhaitz bat aldatu dut, umek ere ekarri ttut, liburu bat idaztea falta ote zait?

## XEBE APEZETXEA



### Nor da Xebe?

Herrin denak ezautzen duten "gizon" bat.

### Kostaldea edo mendi aldea?

Mendi aldea.

### Oporrak pasatzeko leku bat?

Kostaldea.

### Goizutan buelta itteko mendi bat?

Artikutza, mugaz muga.

### Goizutan ikustea merezi dun txoko bat?

Alduntzingo Jauregia.

### Amabirjinak edo ihauterik?

Ihauterik.

### Festatako egunik polittena? Edo ihauterietakoa?

Asteartea orain, dudik gabe mozorro atetzen nitzan garaian astelehena.

### Zer aldatuko zenuke edo kendu?

Ihauterik astebukaera hartzen dutela jarri mozorrotako astelehena eta asteartea errespetatuz

### Amets bat...

Munduan barrena bidaiatu. Belfastera zerbeza beltza edatera...